



## **114. OSOKO BILKURAKO AKTA**

Zumaia herrian, 2017ko urriaren 9an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:**

Oier Korta Esnal jna.

**Bertaratutako zinegotziak:**

M. Cruz Alvarez Aparicio and.  
Jon Joseba Iraola Rezola jna.  
Gotzon Embil Unanue jna.  
Cristina Vicente Iciar and.  
Ane Arregi Urbieta, and.  
Alex Oliden Antia jna.  
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.  
Josu Arrieta Arriola jna.  
Ione Muguerza Egaña jna.  
Arritokieta Marañon Basarte and.

**Ez bertaratutak**

Arritokieta Iribar Egaña and.

**Idazkaria:**

Gorka Urgoiti Agirre



## EGUNEKO AZTERGAIAK

### 1.- OGASUNA.-

#### 1.1.- IRIZPENA:

#### 2018. EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

**2017KO URRIAREN 4KO OGASUN ETA PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, 2018. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEKO.**

#### AURREKARIAK

2017ko irailaren 25eko eta urriaren 2ko Ogasun eta Pertsonal Batzordean 2018. urterako ordenantza fiskalen proposamenak aurkeztu ziren.

2017ko urriaren 4ko Ogasun Batzordean 2018. urterako ordenantzaren behin betiko proposamena aurkeztu da. Jarraian, 2018rako ordenantza fiskalen behin betiko onespenerako irizpenaren bozketa egin da.

Irizpen honi 2018ko Ordenantza Fiskalen proposamena eransten zaio.(1.Eranskina)

#### IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko urriaren 4an, Ogasun eta Pertsonal Batzordeak aldeko irizpena jaso du hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 3 (EAJ (2), PSE-EE (1))

Aurkako botoak:

Abstentzioa: 2 (EH BILDU (2))

Honako PROPOSAMEN hau udalbatzako Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2018.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberara, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogeita hamar egun baliouduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamazioak aurkeztu ez bada behin behinekoko erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2017ko urriaren 4an  
Kontu-hartzaileak

Lioba Maiza Recondo

MARIKRUZ ALVAREZek (EAJ-PNV) esan du Irailaren 25ean egin zutela ordenantza fiskalak eztabaidatzeko lehen batzordea eta azaroaren 4an bozkatu zutela diktamena.

Guztiok adostasuna agertu zutela irizpide orokor bezala 2016ko abuztutik 2017ko abuzturaino KPI-a aplikatzearena, KPI-a 1,7koa izanik igoera horixe proposatzen dute zerga eta tasa gehienentzako, salbuespenak salbuespen.



**Ondasun higiezin gaineko zergan IBI-an** Gipuzkoako Foru Aldundiak hiritar higiezin errodan berrikuspen katastralak burutu zituen lehengo urtean, Aurten ere balore katastraletan %2ko igoera aurreikusten dutela jakinarazi digute. Hau jakinik 2018rako udalak tipoak izoztearen aldekoa aurkezten da.

Hobari guztiak berdin mantentzen dira.

Bizigune programaren barruan erabilera-lagapena duten ondasun higieziei dagozkionak.

Famili ugarietara dagozkionak.

Eguzki energiaren aprobeitxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higieziei dagozkionak.

Ohiko egoitza ez diren etxebizitzetara aplikatzen zitezaien %75eko errekarria kendu zen 2016an eta gure proposamena berdin jarraitzearena da.

**Ekonomia Jardueren gaineko zergan**, tokiko ekonomia babestu eta bultzatzeko xedez igoerarako koefiziente bakarra izoztea proposatzen dugu, 2.04ean mantenduz.

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergan**, autobusak, kamioiak, trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastan eramandako atoi eta erdi atoi zergak izoztu eta gainontzeko guztiei irizpide orokorra aplikatuko zaie.

Lehengo urtean gutxi kutsatzen duten ibilgailuei ezarritako hobaria mantentzen da eta aurten berrikuntza bezala % 50eko hobaria izango da familia ugarietarako.

Familia bakoitzeko turismo bakar bati aplikatuko zaio baldin eta 14 zaldipotentziatik beherakoa bada, bost plaza edo gehiago baditu eta indarrean dagoen legediaren arabera, familia ugarietara kideren baten jabetzakoa bada.

**Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan**, hemen araudiak onartzen diren tipo maximoetan gaude, beraz, berdin mantenduko da. % 5a

**Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergan**, hemen ere araudiak onartzen duen tipo maximoetan gaude, beraz berdin mantenduko da % 15a.

**Zerbitzu publikoak eskaini eta Jarduera Administrazioak egiteagatik ordaindu beharreko tasak**, hemen tasa guztiei irizpide orokorra aplikatuko zaie, 1,7ko igoera ondorengoak salbuetsita: zaborrak, Mankomunitatetik gestionatuko dira aurrerantzean,

Jarduera ekonomikoekin bat datozen lizentziak eta komunikatuen tasak izoztu egingo dira.

**Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzian berriz**, kostu maximoa aplikatuko zaio 155,00 €

**Garabi eta zepo zerbitzuen tasak**, ez dute igoerarik jasango

**Uretan**, tasa guztiei irizpide orokorra jarraituz 1,7ko igoera aplikatuko zaie. Berrikuntza bezala kuota finkoak hiruhilekoak baina hornidura laburragoetan kuota finko hornidura egunen arabera hainbanatuko da.



**Zumaia Udal** **Gizarte Zerbitzuetan**, Gizarte Zentroan, Podologoa; Ile-apaindegia; Tabernako prezioak, guztiak izozten dira.

Erabilera anitzeko apartamentuetan ere tasak izozten dira.

Aurten ere aldaketa nabarmenena etxez-etxeko laguntza zerbitzurako tasetan dago.

Zerbitzuari bultzada ematen jarraitzeko laguntza eskaintzen duten pertsonen lana sustatzeko eta guztia herritarren eguneko beharretara egokitzeko helburuarekin tasak lanegunetan 16,00€tara eta jaiegunetan 17,00€tara jaitsiko dira .

Jarraituz, herrian eta herritarren artean dauden eta sortu diren beharrei erantzuna emateko aldera hainbat tasa berri ezarri dira:

Aita Mari zinemako alokairua,

Alondegiko Oxford aretoaren erabilera eta beste batzuek egokitzea proposatzen da,

San Telmo ermitako ezkontzen inguruko tasa,

Udal eraikinen erabilpenen tasa, guztiak gaur egungo mantendu kostuetara hurbilduz.

**Berdintasun arloan**, tailer guztiak dohainik jarraituko dute.

Ludoteka, udalekuak, kirol patronatuko tasak, musika patronatuko tasak esan bezala guztiei irizpide orokorra aplikatuko zaie 1,7ko igoera.

Lehenengo urtekoarekin jarraituz, ahalmen ekonomikoaren printzipioaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo gizarte larrialdietako laguntzen onuradunen bizikidetzaren unitateko seme-alabek ez dituzte Kirol Patronatu, Ludoteka edo eta udalekueko tasak ordainduko, hau da, dohaineko zerbitzua izaten jarraituko dute.

Amaitzeko, TAOko txartelaren prezioari dagokionez, lehen fasearen balorazio eta azterketa sakona amaitu eta datorren urteari begira indarrean jarriko den ordenantza landu eta onartu ezean urteko egoiliar txartelaren prezioak egokituko dira 25 €tan lehenengo txartela, 35€tan bigarren txartela eta 45€tan hirugarren txartela besteak beste, eta ordenantza berria behin indarrean sartzean ordenantza fiskala aldatuko dugu.

JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH BILDU) Testu bat irakurri du ordenantzak baloratzeko:

### **2018RAKO ORDENANTZA FISKALAK**

Orokorrean, ordenantza fiskaletan, KPIaren errefentziarekin jokatzeko da urtero, eta aurten, udal gobernuak KPIa (%1,7) igotzea proposatu du zergak eta tasak salbuespenak salbuespen. Orokorrean ados gaude irizpide honekin.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergan, turismoak igotzen dira KPIan.

Beste lau zergak izozten dira:

Plusbalia eta Eraikuntzen zerga, aspalditik bere muga altuenean daude eta gehiago ezin dira igo. Ondasun higiezinaren gaineko zerga (IBI) ere izozten da udal gobernuaren proposamenean eta ados gaude honetan gobernuarekin baina esplikazio bat merezi du nahiz eta Marikruzek esplikatuko baina bueno.



## Zumaiako Udala

2017IAKU0006-004-004

Izan ere, KPIa baino zertxobait gehiago igoko baita Gipuzkoako Foru Aldundiak %2 igo baitu balore katastralak eta horiek dira kontutan hartzen direnak gero Udalak tipoa aplikatu ahal izateko.

Bestalde, baita ere "IBI"aren barnean, EH Bilduk, azken bi urtetan bezala, bigarren etxebizitzei rekargoak aplikatzea eskatu dio udal gobernuari. Hau da, orain 2 urte kendu zen rekargoa berreskuratzea, etxe hutsen merkaturatzea errazteko eta diru hori etxebizitza politikan berinbertitzeko. Udal gobernua ez du onartu nahiz eta legediaren aldetik ez daukan inolako eragozpenik garai baten leporatzen zitzaigun bezala. Gogoratu behar da Foru Arauaren barnean egoteaz gain eta beste udal batzuk aplikatzeaz gain, duela gutxi epaitegi konstituzioanalak ere babestu egin duela erabaki hau.

Aurten, gainera, eskatu dugu rekargo hau jartzea, baita ere, apartamentu turistikoei, baina ez da posible izan Foru Arauan ez dagoelako txertatuta aurkera hori. Dena dela, hurrengo urteetan ikusi beharko da ea posible den aukera hau sartzera Foru Arauan.

Tasei dagokionez, kontuan hartu behar da tasak zerbitzu konkretu bat ordaintzeko direla, eta, zerbitzu horren kostea estaltzeko ahalegina egin behar dela tasa kalkulaterakoan.

Ondo ikusten dugu udal gobernua argitaratu duen bezala "Udaleko diru sarrera eta gastuak berrikustea, ezinbestekoa baita Udalak ematen dituen zerbitzuen kostuen eta tasetatik jasotzen diren diru sarreraren arteko oreka mantentzea eta bermatzea". Baina, aurten ez dakigu zeintzuk izan diren kostoak ez direlako egin. Zentzu honetan gogoratu beharko genuke udal gobernu honek askotan kritikatu eta argitaratu duela publikoki aurreko legegaldiko udal gobernuaren kostoak ez egitearren, baina oraingoan berak berdin egin duela.

Horregatik, aurten, tasen inguruan ezin dugu balorazio handirik egin. Dena dela, ez dira igoera nabarmenik ikusten udal gobernuaren proposamenean. Gehienak KPIa igo edo izoztu egiten dira gutxi batzuk izan ezik: animalari arriskutsuak, edo TAO-OTAKo urte osoko txartelak.

Azkenik, azken 10 urtetan, hain "polemikoa" izan den zaborraren tasa, aurten desagertzen da Zumaiako Udaleko ordenantza fiskaletatik eta Urola kostako Udal Elkarteko ordenantza fiskalari txertatuko dira eta bertan emango dira eztabaidak, espero dezagun, denon adostasunarekin.

Azken urtean esan genuen bezala, ados azaldu gara udal gobernuak Gizarte zerbitzuetan egindako tasen izozketekin eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kostua jaisteko proposamenarekin.

Bukatzeko, aurreko 2 urtetan esan dugun bezala, azken urtetan sartu diren hobariak eta ia aldaketa guztiak mantentzen dira.

Baina, gure ustez, lehen esan dugun bezala, ondasun higiezinaren gaineko zergan, orain dela 2 urte, ezarrita zegoen rekargoa berreskuratu beharko litzateke.

Hain zuzen ere, rekargo hau ez berreskuratu nahi izateak eragina izan du gure bozkaren zentzuan eta ABSTENITU egingo gara. "

ZUMAIAKO EH BILDU UDAL TALDEA.-

Ondoren JOSEBA JOSU AZPIAZUK (EH BILDU) ohartarazi du plenoko deialdian bidalitako Ordenantzetan zaborraren tasa oraindik hor dagoela, agian oraindik seguru ez dagoelako gauza edo; eta bestea OTA-ren prezioak udakoak ere dauden bezala egon behar ziren edo zero egon behar ziren, nahiz eta gero egokituko diren ateratzen den emaitzekin.

MARIKRUZ ALVAREZek (EAJ-PNV) hitzez hitz:

Bueno Joseba, gauza asko esan dituzu baina batez ere batekin geratu naiz eta horixe noa erantzutera.

Esaten duzunean kostuak ez direla egin, hori ez da egia, nahi dut esan, erraz esaten duzue kostuak ez direla egin,

Alde batetik guk proposamen bat egiten dugu eta zuek proposamenari baiezkota ematen diozue ez? orduan zuek ere kostuak begiratuko zenituzten?



**Zumaiako Udala**

2017IAKU0006-004-004

Dakizuen bezala kontu hartzailetzan dagoen bezalaxe dago. Daukagu kontu hartzaile bat %25 – 30eko lanaldian eta teknikoak baja hartu du.

Orduan egoera dena da, ez daukagu kostu ikerketa ofiziala, hori batzordean komentatu zen baita ere. Liobak ere denoi azaldu zigun sistema ere aldatu egin dela eta azaroan sareko bitartez bidaliko dela udaletxe guztiak kostu ikerketak metodo sistema edo unifikatu batean egitea eta ez bakoitzak berea.

Dena den nik nahi baduzu etorri hona oraintxe bertan eta erakusten dizut nire kostu ikerketa nola daukadan egin da eta nahi dut esan, zerbait proposatzen denean atzetik zenbakiak begiratuta eta hausnarketa bat egin dela konturatzeko. Beste gauza bat da hori ofiziala ez dugula egin baina nik nereak egin ditut, suposatzen dut zuek ere bai zuenak.

Eta nola atera ditudan kostu ikerketak ere ez dizuet azalduko ez?

2016ko likidazioa denok daukagu, bai?

Orduan 2016ko likidaziotik 2017rako proposatu ziren aldaketak kontuan hartu eta 2018rako proposatzen direnak kontuan hartu ditut sarreretan, baina esaten dizut ni ez naiz kontu hartzailea, ez da kostu ikerketa ofizial bat baina zenbakiak atzetik badaukagu eta nahi baduzu oraintxe hementxe daukat excel-a eta erakusten dizut, ez daukat arazorik horretarako.

Bestalde, apartamendu turistikoena, hori ere komentatu genuen, begiratu beharreko gauza bat dela, baina momentuan ez dago ezer.

Donostian badakit, badabiltzala ordenantzaren bat lantzen e.a. baina guk oraindik ez daukagu ezer eta espero dugu denon artean lantzea zerbait kasu horretarako.

Eta zaborrena? Zaborrena esan bezala ez? Mankomunitatetik eramango dira aurrerantzean baina kontu hartzaileak gomendatu zigun bada ez bada uzteko tasak dauden bezala ba... ez dakit Mankomunitatean zerbaitengatik atzeratzen badira edo zerbait... arazorik ez izateko sentidu horretan.

Gero amaitzeko gizarte zerbitzuetan, etxez etxeko zerbitzuarekin ba... poza ematen dit, zuek garai batean ere igo zenituzten tasak, guk jaisteko bidea hartu genuen eta azkenean biok bide berdinetik goaz eta horrek egia esan poza ematen dit,

Eta gero errekaruari dagokionez, bai badakigu, hori ere diskutitu dugu batzordeetan eta azkenean esan bezala guk sentidu horretan errekaruarena, nik ere irakurri dut, komentatu genuen baita ere konstituzionalak abalatzten duela ez? errekaruari hori, nik inoiz ez dut esan legez kanpo dagoenik errekaru hori, nik normal ikusita daukat, o sea, nik bakarrik esan dudana da guk ez dugula ikusten baina ez legez kanpoko zenik, bai? eta irakurri dut eta ez dut errepikatuko berriz guztia, baina hori bai, gauza bat da aldekoak garen edo ez, baina legez kanpo nik inoiz ez dut esan hala denik eta bestela bueno... azkenean pleno guztiak grabatzen dira eta atzera egitea daukagu, besterik ez

ALKATEAK: Nik hor pixkat, Josebak esan duenaren harira ikerketa kostuak ez daudela egin da eta nik uste dut lehengo urtean egin izan direla, legealdi honetan ohitura hartu dugu udal gobernu berriak ikerketa kostu horiek egitera, Bilduk ez zeukan ohitura hori aurreko legealdian eta errekaruari dagokionez



**Zumaiaako Udala**

2017IAKU0006-004-004

eta honekin pixkat lotuta, nik galdetuko nioke Bilduri errekarro hori jarri zuenean bere legealdian etxebizitza hutsei ba... azterketa egin zuen eta ze eragin izan zuen, o sea, dakigu zenbat gehiago kobratu zuen udaletxeak errekarro horregatik, ez dakiguna da neurri horrek ze eragin izan zuen alkilerreko merkatuan ez? porque azkenean Bilduren diskurtso politikoan errekarro hori da alokairuko merkatu hori handitzeko helburuarekin ez?

Eta normalean udal gobernu batek indarrean jartzen duenean errekarro berri bat edo neurri politiko berri bat helburu jakin batekin ba... nik uste dut puntu garrantzitsuetako bat izango dela ze helburu lortu ditugun ez?

Jaiotzen den helburu hori betetzen den. Eta betetzen baldin bada ze portzentaietan, Eta niri gustatuko litzaidake galdetzea Bilduri datu horiek badauzkan, guri galdetu digun bezala ikerketa kosturik egin den, Bilduri galdetzen diot daturik dauzkan bera gobernuan egon denean eta errekarro hori jarri denean ba... ze eragin izan duen alokairu merkatuan, nik atera dudana da udalak zenbat gehiago kobratu duen, diru sarrerak igo egin dira, udaletxean, bigarrenge etxebizitza daukanari gehiago kobratzen diogu baina benetan bete den helburu hori galdetzen diot Bilduri,

Eta gero bestetik ere bai, gustatuko litzaidake azpimarratzea hobariak ez direla.... bere horretan jarraitzen dutela eta gustura zaudetela eta nik uste dut hemen bi urte hauetan hobariak jarri dira, ez? Etxez etxeko laguntza jaitsi egin da ez? eta gero bestetik RGiko onuradunei ere hainbat zerbitzu dohainik jarri zaie, orduan ez dira... o sea neurri berriak hartu behar dira ordenantza fiskaletan eta hori.. famili ugarietarako dagokionez ere bai hor neurri batzuek ere hartu dira, eta zuei igual pasatu egingo zitzaizkizuen altutik baina udal gobernu honi ez zaizkio pasatzen, landu ditu eta martxan jarri ditu ordenantza fiskalak berez, eta nire aldetik gehiago ez, ez dakit, norbaitek hitza eskatzen duen edo... zuzenean bozkatzera pasako garen.

ARRITXU MARAÑON (ES-SV): No, para explicar el sentido del voto, nada más Y que votaré, votaremos a favor porque entendemos que son unas ordenanzas fiscales para este año bastante continuistas respecto al anterior y ya el año pasado también las aprobamos y en este sentido defendemos la subida del 1,7 para el conjunto de las tasas y ordenanzas y la congelación en general así como ciertas bajadas en todos los temas de acción social, fundamentalmente y poco más, ya lo dije en la comisión y lo mismo.

JOSEBA JOSU AZPIAZU (EH BILDU): Esan dudanean... Marikruzek esan duzu zuk ez duzula esan hori... etxebizitza hutsak errekarroa jartzea sekula ez duzula esan legala ez dela, ez dizut esan zuengatik, nahi dut esan aspaldiko kontu bat da eta garai batean ez zegoen jarrita eta gainera ni nengoela jarri zen lehenengo aldiz, ez zen aplikatu ni nengoela, gero hurrengo legealdian uste dut aplikatu zela baina guri hori jartzerakoan esaten zigun legeak gure kontra egingo zuela eta hori jartzen zenean jende dena erreklamatzeko etorriko zela, epaitegietara joango zela eta atzera botako zuela dena eta udalean egongo zela kriston foilola eta azkenean foilola ez dakit egon den, egongo zen igual, erreklamazio asko egongo ziren, ez dakit, porque esaten dizut guk bukatu eta gero hurrengo



**Zumaia Udalak**

2017IAKU0006-004-004

legealdian aplikatu zen eta ni aurreko legealdian egon nintzen deskonektatuta eta ez dakit, baina... epaitegiak azkenean arrazoia eman du, horretan behintzat arrazoia eman digu.

Eta gero bestea esan duzuna ze... politika aplikatuko den, esan dizut, o sea, esan dizut ez! ez dakit, ni aurreko legealdian ez naizelako egon, hori aplikatu denean baina diru hori, ez dakit, ze efekto sortu duen etxebizitzak alokatzera, ez dakit, etxebizitza alokatu gehiago egin diren edo ez, hori ikusi egin beharko litzateke, baina bai egin daitekeena da recaudatzen den diru horrekin, ez dakit, zenbat izango den hori ere, ideiarik ez daukat ba... etxebizitzetako politiketan inbertitu aurrekontuetan, orain momentuan ez dakit, zertan, baina hori izango litzateke aurrekontuetarako gauza bat, aurrekontuetarako zertan diru hori inbertitu beti ere etxebizitza politikan, eta horixe,

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Bale, nik gaizki ulertu dizut, ulertu dizut nik esaten nuela legez kanpo zegoela, eta bueno akklaratuta Joseba eta

Bestalde, komentatu nola ibili garen batzordeetan eta nire informatzen ibili naiz ez? 2012an jarri zen erreklamo Diputazioak 2012an jarri zuen eta bai! erreklamazio asko egon dira Zumaia udalaren ez dakit, azkenen berri da Zarauzkoa eta dela azkenengo artikulua atera dena konstituzionala eta abalatu duela erreklamazio hori ez?

Nik azkenean ikusten dudana da, baina hau ez dakit, hemen ez da eztabaidatuko eta irakurri dudanaren arabera arazoa zen vivienda vacia hori definitzea ez? baina bueno azken finean iruditzen zaidana da helburua atera zenean helburua esaten zen zela etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko e.a. irakurri dudana da eta dextente izan da egun hauetan helburua lortu ez da lortu, baina hori bai, udalarek eduki etorri zaie krisi garaian atera zen erreklamo hori 2012an eta azkenean izan zen otro sistema recaudatorio más.

## **ERABAKI ZATIA(PARTE RESOLUTIVA)**

**Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 4 boto (EH BILDU)**

### **ERABAKIA:**

1.- Hasierako onarpena ematea 2018.urterako Ordenantza Fiskalari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikularen arabera, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratu hogeita hamar egunetan zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta





errekamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

-----

**ORDENANTZA FISKALETAN %95EKO HOBARIA BARNERATZEARI BURUZKO IRIZPENA: CEIP OIKIA HLHI IKASTETXEKO "ERAIKIN BERRIA EGITEA" PROIEKTUAN**

**AURREKARIAK**

2017ko martxoaren 9ko datarekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Programen arduraduna den Juan Jose Agirrezabala Mantxolak, 2017ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saileko lurralde ordezkariaren ordezkoa (Espedientea: 2017 HBLH0003), Zumaia udalari honako eskaera egin dio: **"Udalerri horretan indarrean den Eraikuntza eta Obren Gaineko Zergen ordenantzak bere 3. Artikuluan dioenaren arabera, %95eko hobariaren izatea, interes bereziko edo udal erabilerakoa izanik"**.

**IRIZPENA**

Horregatik, 2017ko urriaren 4an ospatzen den batzorde honek onartzen du eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergen %95eko hobaria ematea "eraikin berria egitea" CEIP Oikia HLHI ikastetxean, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 5 (EAJ(2), EH BILDU(2), PSE-EE(1))

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabakitzen da.

Zumaian, 2017ko urriaren 4an.  
Lioba Maiza Recondo  
Kontu-hartzailea.



## ERABAKI ZATIA/PARTE RESOLUTIVA

**Aldeko botoak:** 11 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV, 4 EH-BILDU)

**Kontrako botoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**ERABAKIA:** CEIP Oikia HLHI ikastetxean, "eraikin berria egiteko", eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea onartzen da

-----

### **2.- HIRIGINTZA.-**

#### **2.1.- IRIZPENA:**

**ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN 17 HA-ARTADIKO 17.1 EGIKARITZE-UNITATEAREN XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**2017KO URRIAREN 2KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN 17 HA-ARTADIKO 17.1 EGIKARITZE-UNITATEAREN XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2017ko abuztuaren 16ko 604/2017 zk. duen Alkatetza Dekretuaz Zumaiko plangintzako arau subsidiarioen barruan, JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDK sustatutako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen xehetasun-estudioari hasierako onespina eman zizaion familia bakarreko bi etxebizitza eraikitze lizentzia eman baino lehen, planeamenduak ezarritako baldintzak bete ahal izateko

2.- Xehetasun azterketaren berri 2017ko Irailaren 11ko Hirigintza batzordean berri eman zen.

3.- Indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera, horren berri eman zaio ingurukoei eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2017ko Abuztuaren 28) eta zabalkunde gehien duen lurraldeko egunkari batean iragarkia argitaratuz 20 eguneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.

4.- Jendaurrean izan zen epean ez da alegaziorik aurkeztu.



**Zumaia Udala**

2017IAKU0006-004-004

**5.-** Irizpena jaso dezan JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDK sustatutako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Xehetasun Azterketa aurkezten da.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko Urriaren 2an, ondorengo botoekin

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)  
Jon Iraola Rezola (EAJ)  
Josu Arrieta Arriola (Bildu)  
Kontra: 0  
Abstentzioa: 0

Hirigintza Batzorde informatiboak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

- 1.-** JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDK sustatutako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Xehetasun Azterketari behin-betiko onarpena ematea.
- 2.-** Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaia 2017ko Urriaren 2a  
Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoko  
[Arduraduna](#)

### ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak: 11 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV, 4 EH-BILDU)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** **1.-** JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDK sustatutako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Xehetasun Azterketari behin-betiko izaeraz onartu da

**2.-** Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.



-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta hamazazpi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria